

## KOSTALDEKO HABITATAK

### DESKRIBAPENA



Kostaldeko habitatak itsasertz guztian hedatzen dira, eta, horren ondorioz, itsasoak eragin handia du haietan. Gainera, eremu horietan, gizakiaren jarduerak ere oso ugariak dira, eta, beraz, presio handia jasaten dute habitat horiek.

Laidako hondartza

### EUNIS HABITATAK











EUNIS KODEA	EUNIS Habitata
B1.1	Hareazko hondartzen itsasgoraren goi-mugako komunitateak
B1.21	Landaredirik gabeko harea-hondartzak
B1.31	Landaredi aitzindaria duten duna mugikorak
B1.32	Duna zuri mugikorak
B1.42	Duna grisak (finkatuak)
F4.231	Kostako <i>Erica vagans</i> generoko txilardia
B2	Uharrizko hondartzak
B2.12	Itsasoko hondakin-metaketetan hazten den urteko landaredia
B3.11	Algak eta likenak dituzten arroka supralitoralak
B3.23	Landaredirik gabeko kostako itsaslabar eta harkaitzak
B3.31	Kostako itsaslabar eta erlaitzak, angiospermoak dituztenak









### BANAKETA

Unitate horrek 2.400 ha-ko azalera hartzen du; hau da, EAEko azaleraren % 0,33.



## EMANDAKO ZERBITZUAK

HORNIDURA-ZERBITZUAK	ZER HORNITZEN DUTE?	ERREGULAZIO-ZERBITZUAK	ZER HORNITZEN DUTE?	KULTURA-ZERBITZUAK	ZER HORNITZEN DUTE?
<b>Elikagaiak</b> 	Ekosistema hauetan, elikagai ugari aurki daitezke (arrainak, itsaskiak, algak, etab.) Txilardiek ezta egiten laguntzen dute.	<b>Klima erregulatzea</b> 	Habitat hauetako landaredia eta harkaitz karbonatatuak CO <sub>2</sub> -hustulekuak dira, eta horrek klima erregulatzeko laguntzen du.	<b>Aisialdiko jarduerak</b> 	Itsasertzeko habitatetan, edozein motatako aisialdiko jarduerak egin daitezke (surfa egin, paseatu, eguzkia hartu, etab.)
		<b>Airearen kalitatea erregulatzea</b> 	Landarediak eta beste organismo batzuek aireko kutsatzaileak atxikitzen dituzte, eta haren kalitate ona bermatzen.	<b>Jakintza zientifikoa</b> 	Ezagutza-iturri bikainak dira ekosistema hauek, hainbat ikerketa egiteko aukera ematen dutenak.
<b>Lehengai biotikoak</b> 	Mareek dakartzaten materialak ongarriztatzen erabiltzen dira; kanaberak, zenbait objektu fabrikatzeko; eta algak ( <i>Gelidium sesquipedale</i> espeziekoak, adibidez), kontserbagarriztatzen.	<b>Ura erregulatzea</b> 	Itsasertzeko habitatetan oso erraz arazten dira gizakiok isuritako ur zikinak, eta beraz, aise erregulatu da sisteman erabiltzeko den ura.	<b>Ingurumen-heziketa</b> 	Ekosistema hauetan, ingurumen-heziketarekin lotutako hainbat programa abiarazi dira: Azterkosta izenekoa, esaterako.
		<b>Higadura kontrolatzea</b> 	Habitat hauetara egokitutako espezieek, beren estoloi erradikular indartsuei esker, lurzorua egonkortzen dute, eta mareek higadurarik ez eragitea bermatzen.	<b>Jakintza tradizionala</b> 	Habitat hauetan, besteak beste, arrantza-ohitura tradizionalari eusten diete.

HORNIDURA-ZERBITZUAK	ZER HORNITZEN DUTE?	ERREGULAZIO-ZERBITZUAK	ZER HORNITZEN DUTE?	KULTURA-ZERBITZUAK	ZER HORNITZEN DUTE?
<b>Energia berriztagarria</b> 	Habitat hauetan erraz lor liteke energia eolikoa, haizeak gogor jotzen baitu.	<b>Lurzoruaren emankortasuna</b> 	Lurzoruari eta zenbait organismori esker, mantengaiak metatu eta birziklatu egiten dira.	<b>Paisaien estetikaz gozatzea</b> 	Itsasertzeko habitat hauek oso atseginak dira, bai arrazoi estetikoengatik, bai sormen-iturri izateagatik, bai inspirazio-iturri espirituala izateagatik.
<b>Gene-gordailua</b> 	Espezie eta arraza mota asko daude, genetikoki oso ugariak.  Nabarmentzekoa da <i>Armeria euscadiensis</i> espezie endemikoa.	<b>Naturako nahasketak erregulatzea</b> 	Amildegiei esker, haizea eta itsasgorak kontrolatu daitezke; dunek, berriz, hondartzak sendotzen dituzte, ahalik eta hondar gutxiena gal dezaten.	<b>Identitate kulturala eta toki batekoa izatearen sentipena</b> 	Ekosistema hauetan tradizionaluki nagusi izan diren ohiturek arrasto sakona utzi dute bertako kulturaren dantzetan eta folklorea, batez ere.
		<b>Kontrol biologikoa</b> 	Habitat hauek oreka-egoeran daudenean, erraz erregula daitezke izurri eta inbasioak.		
		<b>Polinizazioa</b> 	Itsasertzeko txilardiak oso garrantzitsuak dira polinizazio-prozesuan, haietan lore ugari daudelako.		